

Txiki ren itzal handia

Juan Mari Larrañaga 'Txiki'-ren
hutsunea nabaria da oraindik Orion

Gorka Zabaleta / Orio

Datorren hilean urtebete izango da Juan Mari Larrañaga Txiki auto istripuz hil zela. Orioko patroï txikiak zulo handia utzi du taldeki-deen bihotzetan, eta oraindik ere gertaturikoaz hitz egitea gogor egiten zaiela onartzen dute. Mahai baten inguruan, ordea, laster datozkie gogora harekin bizitako pasadizoak, bere umorea eta bihotz ona.

Joxe Julian Olasagasti presidenteak Txikirekin izandako azken harremana kontatu digu: «Oso adeitsua zen, detailezalea. Bera hil zen egunean nire emaztearen urtebetetzea zen, eta hiru egun lehenago esan zidan krabelin horiak bidaliko zizkidala etxera. Nik esan nion hori gehiegizkoa zela eta telefonoz deitzearekin nahikoa izango zela. Esan zidan Gasteizera goizo joan behar zuela eta orduan deituko zuela. Egun hartan 07:10ean telefonoak jo zuenean pentsatu nuen bera izango zela. 'Hau goizegi zabilék andreari zorionak emateko', pentsatu nuen. Telefonoa hartu nuenean, munizipala hasi zitzaidan Juan Mari Larrañagari gertatutakoa kontatuz, eta pentsatu nuen bera zela niri adarra jotzen».

Adarjolea eta zirikatzailea baitzen Txiki. Migel Angel Lizarralde Altxerrik entrenamenduak berpizteko zuen ahalmena azpimarratu du: «Egun txarrenetan ere denok lanerako prest jartzeko ahalmena zuen bere txorakerie-

kin. Askotan esaten zuen egunen batean egur bat jarriko zuela, alde batean eseri eta bestean bermuta eta oli-bak jartzeko».

Olasagastiren ustez, Txikik bertsolari bihotza zuen: «Bertsolariaren etorria zeukan. Bertsoa hitzez osatzen ez zuen jakingo akaso, baina bera bihotzez bertsolaria zen». Eta hori osatzeko pasadizo hau kontatu digu: «Behin, Espainiako Txapelketan, pisura ez zen iristen eta Euskadi Irratiko Manu Mari-txalarrek zuzeneko elkarrizketan galdetu zion ia falta zitzaion kiloa non eraman zuen, eta Txikik erantzun zion barrabiletatik zintzilik eraman zuela».

«Andrerik ez zuen, baina horri ere punta ateratzen bazekien», jarraitu du Altxerrik. «Beti esaten zuen 'etxera joateko garaia duk, andrea zain zeukaat eta; andrea umea egiten zeukaat'».

«Mutil ona zen»

Anjel Odriozolak oso ongi ezagutzen zuen, egunero batera joaten baitziren Zarauztik entrenatzera: «Mutil ona zen. Harreman handia genuen, eta beti galdetzen zuen sentideengatik. Askotan etxera deitu eta andreaz, alabaz edo amaz galdetzen zuen norberaz baino gehiago». Mundu guztiarekin ongi moldatzen zen gizona omen zen. Arrutik dio kostalde osoan zituela lagunak, eta Olasagastik beste pasadi-

Txiki Larrañaga, iaz lortutako Kontxako banderarekin.

zo bat kontatu digu: «Behin Donibanakorekin iskanbila izan genuen trainera zela eta ez zela. Elkarri begiratzeko gauza ere ez ginen, eta Txiki Donostiako moilan bertan Lujanbiorengana hurbildu eta haxe bota zion: 'Hi, zaldian ere hasi egingo nauk, eta han, hementxe bezalaxe, izorratu egingo haut'. Tentsioa apurtzeko gauza zen».

Mikel Orbañanosek azpimarratu nahi du azken urtean Txiki oso gustura sentitzen zela arraunean: «Lehen itsaso txarra zegoenean Korta jartzeko eskatzen genuen. Iaz, besterik ez zegoen, eta azkenean erakutsi zuen bera zela onena».

Txikiri gertatutakoaz apenas hitz egin dutela bota du Ibon Urbietak, «oraindik oso

hurbil» sentitzen dutelako. Horrek ez du esan nahi gogoa ez daramatenik. «Aurten estropada askotan gertatu zaigu Oskarri Txiki deitu izana» dio Altxerrik. Arrutik dio behin baino gehiagotan eskatzen dutela Txikirengatik ahalegina: «Kontxan ere, barruko luzean, Txikirengatik eskatuko dugu, eta baita berari ere guri laguntzeko».

Joxe Julian Olasagasti:

«Bertsolariaren etorria zeukan. Bertsoa hitzez osatzen ez zuen jakingo akaso, baina bera bihotzez bertsolaria zen»

Altxerri:

«Aurten estropada askotan gertatu zaigu Oskarri Txiki deitu izana»

Iñigo Arruti:

«Igande bonetan ere, barruko luzean Txikirengatik eskatuko dugu, eta baita berari ere guri laguntzeko»



Euskararena, txanparik ederrena!



Lasala enparantza 3 • Kanpandegi 1 • Donostia • Tel. 943 42 43 66 • e-posta: legazpi6@bezeroak.euskaltel.es